

ZERUKO ARGIAK ez luke gertaeren kontakizun soilletan bakarrik geratu nahi. Gertaerak jirabiratzten dituen ardatza aurkitzen ere lagundu nahi luke. Baina ez zirrikitu batetik bakarrik begiraturik eta ikusirik. Euskaldunon astakaria izan da eta nahi du izan **ZERUKO ARGIAK**. Talde eta alderdi baten astekaria ez du izan nahi.

Gertatu, gauzaasko gertatzen da, baina zergatik gertatzen dira? Izkutuko hariak bista eraztekoan euskal alderdi guztien begiak nahi ditugu. Bakarrenak baino askorenak hobeto ikusten bait dute.

Lehendik duen bideari jarraiki, sail berri bat moldatu nahi dugu: **HERRIKO PLAZA** deitu saila. Abertzale ikuspegi desberdinetako iritziak plazaratu nahi genituzke bertan. Gure gaintik dagoen galbaheak bakarrik galbahetuko eta baztertuko ditu, agian; ez, guk, ordea.

Ereinaro eta uztaro

36214

Uzta biltzeko sasoinan erein egiten duen nekazaria, alferriz ari da lanean; eta ereintza egiteko haroan uzta biltzen saiatzen denak, era berean, ez uztarik bilduko du, ez bihirik. Udazkena eta udaberria, euritea eta lehorrea, ereinaro eta uztaroa berezten ez lekikeen nekazariak, nekez atxikiko luke. Sasoin bakoitzari bere eginkizuna.

Gauza bera gertatzen da politikaren alorrean.

Gaurko Frantzia eta Exile gauza bera direla diotenak, Euskal Herrian iaz eta aurrean gauzak hein berean daudela diotenak, orain dela hamar urte egoki eta inuragarri gerta zitekeen jokabidea gaur ere bere hartan egoki eta onuragarri gertatuko dala uste duenak; politika-sasoinak, hitz batez, ezagutzen eta berezten ez dakienak, nekez egin dezake ezer onik politikagintzan.

Tots, hain zuzen ere, gauzak addatzen hasiak dira gurean; dexente aldatu dira jadanik. Sasoin batetik bestera ari gara; eta, guk geuk ere, euskalgintzan ari garelarik, geure herriaren alde ezer onik egingo badugu, aldatu egin beharko dugu. Deusik ere aldatu behar ez dela sinets arazi nahi digutenak, ziur egon, edo zozako dira politika-mailan, edo-ta etsaiaren jokoa egiten dute maltzurki.

Gaurko egoera ez da Euskal Herrian Agiri maximalista eta hanpurusak argitaratzeko unea; gaurkoa ez da, gure helburua helburu estetiko eta ele ederrak oratzea ballitzan, erreformismoa salatzeke eta arbuatzeke tenorea; gaurkoa ez da, errazkeri bidez, osoki gure gogaide ez diren abertzaleak zapuzteke eta gaitzesteko tenorea, honela gainera euskal batasuna deseginez.

GAURKO UNEA ESKABIDE MINIMO BAT FINKATU ETA, DENOK ELKARTURIK, EUSKAL ESKABIDE MINIMO HORI LORTZSKO GARAIA DA.

Denok dakigu ongi, edo jakin egin behar genuke, zergatik eta nori esker etorri zaigun gaurko uztaro hau. Ez du balio honi buruz minutu bat ere galtzea.

Zozoak eta eroak ez diren guztiak ohartzten dira (aski baita horretarako edonungo kantaldi edo manifestazio bakar bat ikustea) Euskal Herrian KONPONBIDE BAT bilatu behar dela; eta konponbide hori, gutxi gora behera, gerra aurrean mamitu zen bidetik lortuko dela, eta ez bestela.

Areago: ergel huts ez diren guztiek dakite (eta hau ez da batere inoren kontrako mehartxu, kondaira «rappel» xume-xume bat baizk) gauzak honetaraz gero, eta honen luzaroz eta gupidagabeki herriari ukatu zaiona berriro ere ukatuz gero, beste anitz herritan gertatu den bezala, trajeria odoltsu bat gerta litekeela gure herrian, beste sarraskitze beldurgarri bat (beste bat oraino!). Hots, odolaldi-mota horren ondorioz, ez dute ukatuek eta zapalduak gudua galdu ohi, ukatzaileek eta zapaltzaileek baizik. Han ere gauza garbia eta ezaguna da.

Orain dela ehun urte, eta gehiago ere bai, gure herria ukatzen eta des-euskalduntzen saiatu direnek badakite gaur hori haladela. Azkeneko berrogei urte ankerrotako ondorioak ezin nabarmenkiago erakusten dio edonorri zerk konpon dezakeen euskal arazoa, eta zerk ez.

Orain, horregatik, oraintxe bai, gaurtxe, ahalik eta lasterrenik, eskabide MINIMO bat finkatu behar dugu abertzaleok. 1931an Eusko Ikaskuntzaren laguntzaz egin genuen

arabera, eta federakuntza bati buruz, AUTONOMIA MINIMO BAT mugatu behar dugu; eta eskuz esku, tinko, zindo, hortxe iraun denok gogor, IRUÑEN EUSKAL GOBERNU BAT IKUS ARTE.

Abertzale ez diren indarrek autonomi-eskabide minimo hori onartzen, eta zinez haren alde burrukatzen, baldin badute, hainbat hobe: betoz berak ere gure ondoan. Baina ez geure aurrean. Kasu! Euskal Herriak zer nahi eta behar duen EUSKALDUNOK behar dugu esan, eta ez besteek. Ez baikara pixoihaletan kullukatu behar diren haurrak.

Gauzak horretan daudelarik, gaur, edo berehala bederen, eskuragarri ez diren helburu urrunei buruzko eztabaida alferretan gu errebelatzea, kaltegarria litzateke. Denok dakigu ongi, mutilok, nor zen den.

Har dezagun geure arteko elkarriketenn oinarritzat, behinola denok onartu genuen programa minimoa. Lizarrarako 1931an prestatu zen Estatutua baliagarri gerta lekingue, ene ustez, abiaburutzat. Hitzegin dezagun, erants dezagun, ken dezagun, osa dezagun izkribua; eta gero, bidea erabaki ondoren, egin dezagun BAT eskabide minimo horri buruz; alegia, bat legeetan eta instituzio-mailan beraz gure asmoa eginetan mamiturik ikus arte. Gero geroak.

Zuhurtziak hau eskatzen digu gaur, ene ustez.

Hitzontzikeriaz eta utopiaz aski dugu, eta sobera.

Has gaitezen, otoi, gaurko egunari dagokion politikagintza egiten.

TXILLARDEGI

1976-IX